



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

LEHEN MAILAKO ARRETARAKO UDAL ZERBITZU SOZIALEN ZORROA

(BIZKAIKO GIZARTE ZERBITZUEN ZORROARI ETA MAPARI BURUZKO
URRIAREN 6KO 185/2015 DEKRETUAREN ARABERA)

(1. ZIRRIBORROA)

UDALAREN GIZARTE ZERBITZUAK
2017KO MARTXOA



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

1.1. INFORMAZIO, BALIOESPEN, DIAGNOSTIKO ETA ORIENTABIDE ZERBITZUA



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Zerbitzuaren izena: INFORMAZIO, BALIOESPEN, DIAGNOSTIKO ETA ORIENTABIDE ZERBITZUA
Zk.: 1.1.1.1.

Definizioa eta helburua	a) Pertsonen eta familiei honako alderdi hauei buruzko informazioa ematea: • Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzu eta prestazioei buruz: zer premia eta egoerei erantzuten dieten; norentzat diren; haiek lortzeko baldintzak eta prozedurak; hala badagokio, aplikatutako prezio publikoa; eskaintzen duten arretaren intentsitatea; hainbat prestazio eta zerbitzu konbinatzeko aukera; prestazio eta/edo zerbitzu bakoitzaz arduratzen den administrazioa. • Beren eskubide eta betebeharren buruz, premien balioespen bat eta, hala badagokio, gizarte-diagnostiko bat eta Arreta Pertsonalizatuko Plan (APP) bat izateko eskubidea bereziki azpimarratuta. • Prestazio eta zerbitzu bakoitzak, eta, hala badagokio, haien modalitateek tartean sartutako pertsona guztiei eragiten dizkieten kostu eta etekinei buruz, ekonomiari dagokionez ez ezik, denborari, osasunari eta lan-gainkargari dagokionez ere bai. • Eskaperaren bilakaerari buruz. b) Dagokion pertsonaren eta haren testuinguruaren hasierako balioespena egitea, eta, balioespen horren oinarriaren gainean ondorioztatzen bada beharrezkoa izan litekeela jarraipena egitea eskatzen duen esku-hartze bat, hasierako gizarte-diagnostiko bat egitea; horretarako, pertsona eta familia interesdunen eta haien laguntza-sarearen partaidetza izango da beti, ahal den neurrian. Pertsonari edo pertsonen informazioa ematea Zorroaren prestazio ekonomikoari eta/edo zerbitzuari edota prestazioen eta zerbitzuen konbinazioari buruz, haiek dituzten premiei erantzuteko egokiena zein den jakin dezaten, eta/edo, bidezkoa bada, arreta emateko beste sistema edo politika batzuetako baliabideetara
--------------------------------	---

	bideratzea. d) Diagnostikoak horrelakorik gomendatzen badu, kasuan erreferente gisa jardungo duen profesional bat izendatzea. Profesional horrek, pertsona eta/edo familia erabiltzailearen partaidetzarekin, Arreta Pertsonalizatuko Plan bat egingo du eta Plan horren kudeaketa hartuko du bere gain, tartean sartutako beste sistema eta agente batzuekin koordinatuta, Arreta Pertsonalizatuko Planean aurreikusitako jardunak abian jarritz eta Plan horren jarraipena eta aldizkako ebaluazioa eginez. Hori guztia, kasuaren erantzukizuna erreferentziazko beste profesional baten esku uzten denean izan ezik, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 19. artikuluan eta Dekretu honetan aurreikusitakoaren arabera. e) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak lortzeko aukera antolatzen bideratutako izapidetze-, kudeaketa- eta koordinazio-eginkizunak gauzatzea. f) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren arreta eta babesa eska dezakeen biztanleriaren gizarte-premiak atzematea eta behar diren jardunei hasiera ematea. Zerbitzuaren helburu nagusia pertsona eta familia erabiltzaileei Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema lortzeko informazioa ematea da, eta, hala badagokio, beste arreta-sistema batzuetara bideratzea.	
Zerbitzu motak	Hitzordu presentzialak/arreta arrunta. Astearte eta asteazkenetan, 9:00etatik 14:00etara. Telefono bidezko hitzorduak. Astelehen eta ostegunetan, 14:00etatik aurrera.	
Aldaerak		
Prestazioak	Gizarte Zerbitzuenak	• Informazioa. • Premien hasierako balioespena, eta, hala



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

		badagokio, jarraipen-balioespena. • Hasierako gizarte-diagnostikoa. • Orientabidea. • Lagun-egite soziala.
Hartzaileak	Egoera	Biztanleria osoa.
	Adina	Adin-mugarik gabe.
Lortzeko baldintzak	Administrazioko ak	Baldintzarik gabe, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 3.3 artikuluaaren arabera.
	Premiazkoak	Diagnostikoari lotutako prestazioa balioespenetik esku-hartzeak jarraipena beharko lukeela ondorioztatzen den kasuetan baino ez da lortuko. Orientabidea, bideratzea eta lagun-egite soziala honako kasu hauetan soilik lortuko da: diagnostikoan egiaztatzen bada jarraipena behar duen esku-hartzea beharrezkoa dela eta, beraz, Arreta Pertsonalizatuko Plan bat egiten bada.
Plaza kopurua		
Koordainketa	Ez	
Araua/ordenantza	Ez	
Oharrak		



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Zerbitzuaren izena: EMAKUMEENTZAKO AHOLKULARITZA JURIDIKO ETA PSIKOLOGIKOKO ZERBITZUA
Zk.: 1.1.1.2

Definizioa eta helburua	• Informazio orokorreko zerbitzua Funtzio hauek ditu: a) Diskriminazio- eta babesgabetasun-egoeretan dauden emakumeen arretarako zerbitzu eta baliabide espezifikoak (udalekoak eta udalaz gaindikoak) buruzko informazioa ematea, ahalduz daitezkeen. b) Pertsonaren beharren eta gaitasunen eta haren testuinguruaren hasierako balioespena egitea, eta, balioespen hori oinarri hartuta ondorioztatzen bada beharrezkoa izan litekeela jarraipena egitea eskatzen duen esku-hartze bat, hasierako diagnostiko bat egitea; horretarako, pertsona interesdunaren eta haien laguntza-sarearen partaidetza izango da beti, ahal den neurrian. c) Pertsonari euren premiei erantzuteko egokienak diren zerbitzuetara eta baliabideetara bideratzea, eta/edo, bidezkoa bada, arreta emateko beste sistema edo politika batzuetako baliabideetara. d) Arreta integrala bermatzeko beharrezkoak diren izapide-, kudeaketa- eta koordinazio-funtzioak egitea. e) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren arreta eta babesa eska dezakeen biztanleriaren gizarte-premiak atzematea eta behar diren jardunei hasiera ematea. Zerbitzuaren helburu nagusia emakumeei eta euren familiei Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema lortzeko informazioa ematea da, eta, hala badagokio, beste arreta-sistema batzuetara bideratzea.	
Zerbitzu motak	Informazio orokorreko zerbitzuaz gain, esparru juridikoko eta psikologikoko zerbitzu espezializatuak ematen dira.	
Aldaerak	Aholkularitza juridikoa: aholkularitza juridiko espezializatuko kontsulta puntualak, emakumeen kontrako tratu txarrekin eta indarkeria matxistarekin, dibortzioekin, familia edo bikote barruko gatazkekin eta lan-arloko genero-diskriminazioko gatazkekin erlazionatutako egoeren kasuan. Arreta psikologikoa: laguntza psikologikoko saioen programa, emakume erabiltzaileek erabakiak hartzeko eta ahalduzkoak dituzten zailtasunak aztertu eta gaitasunak indartzeko, indarkeria matxistak edo genero-desberdintasunak eragindako ahultasun-egoeretan.	
Prestazioak	Gizarte Zerbitzuenak eta Berdintasunarenak	Informazioa. Premien hasierako balioespena, eta, hala badagokio, jarraipen-balioespena. Hasierako diagnostikoa. Orientabidea. Koordinazioa. Bideratzea, dagokionean.

Hartzaileak	Egoera	Informazio orokorreko zerbitzua: Biztanleria osoa. Zerbitzu espezializatuak: Diskriminazio- eta babesgabetasun-egoeretan dauden emakumeak, desberdintasunak eta/edo genero-indarkeriak eragindako egoeretan daudenak.
	Adina	Informazio orokorreko zerbitzua: Adin-mugarik gabe. Zerbitzu espezializatuak: 18 urtez gorakoak.
Lortzeko baldintzak	Administraziokoak	Baldintzarik gabe, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 3.3 artikuluaaren arabera.
	Premiazkoak	• Diagnostikoari lotutako prestazioa balioespen teknikitik esku-hartzeak jarraipena beharko lukeela ondorioztatzen den kasuetan baino ez da lortuko. Orientabidea, bideratzetik harago, honako kasu hauetan soilik lortuko da: diagnostikoan egiaztatzen bada jarraipena behar duen esku-hartzea beharrezkoa dela eta, beraz, Arreta Pertsonalizatuko Plan bat egiten bada. • Intentsitate txikiko laguntza behar izatea. • Jokabide-nahasterik ez izatea, edota zerbitzuaren funtzionamenduan eragin larria izan dezakeen portaerarik ez agertzea.
Arau-esparrua	4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunekoa. EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VI. Plana. Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. akordioa Genero-indarkeria eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei arreta hobea emateko tokiko jarduera erakundeen arteko jarduerarako eta koordinaziorako I. udal-protokoloa.	
Oharrak	Berdintasun Departamentuak kudeatzen du zerbitzua. Ermuko Emakumearen Etxean eskaintzen da. Hitzordua eskatzeko fitxa bat dago, aholkularitza juridikoko eta laguntza psikologikoko zerbitzuak ahalik eta ondoen kudeatze aldera.	



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Zerbitzuaren izena: PROFIL SOZIOSANITARIOKO PERTSONENTZAKO ETXEBIZITZAK BIRGAITZEKO ETA EGOKITZEKO LAGUNTZAK KUDEATZEKO ZERBITZUA

Zk.: 1.1.2.1

Definizioa eta helburua	Etxebizitza birgaitzeko, zaharberritzeko, egokitzeko eta ekipamendua erosteko diru-laguntza bat ematea, egokitzapen horiek euren kabuz egiteko baliabide ekonomikorik ez duten Ermuko pertsonei.	
Zerbitzu motak		
Aldaerak	Ez	
Prestazioak	Gizarte Zerbitzuenak	• Informazioa. • Kudeaketa. • Jarraipena.
Hartzaileak	Egoera	Zahartzea, kronikotasuna, mendekotasuna eta urritasuna barne hartzen dituen profil soziosanitarioa duten pertsonak.
	Adina	Adin-mugarik gabe.
Lortzeko baldintzak	Administraziokoak	• Ermuko udalerrian errolatuta egotea, gutxienez urtebete lehenago. • Esku-hartzearen xede den etxebizitzaren jabea izatea eta pertsonaren ohiko etxebizitza izatea. • Pertsona eskatzailearen etxean egin nahi den esku-hartzeak "Etxebizitzetan esku hartzeko konponbideen eskuliburua" dokumentuan bildutako gomendioak kontuan hartzen dituela egiaztatzea. • Azken hamar urteetan helburu bereko beste diru-laguntzarik ez jasotzea, salbuespenezko eta justifikatutako kasa batengatik ez bada.
	Premiazkoak	Profil soziosanitarioko kolektibo batekoa izatea; alegia: • 65 urtetik gorakoa izatea eta bizi den etxean baldintza bereziak behar izatea. • Autonomia pertsonala mugatzen duen gaixotasun kroniko bat edo gehiago izatea, eta bizi den etxean baldintza bereziak behar izatea. • Mendekotasun-kalifikazioa izatea, autonomia pertsonala mugatzen duten gradu eta maila batean, eta horren ondorioz, bizi den etxean

		baldintza bereziak behar izatea. • % 33ko edo gehiagoko eta autonomia pertsonala mugatzen duen portzentaje bateko urritasun-balorazioa izatea, eta horren ondorioz, bizi den etxean baldintza bereziak behar izatea. • Bizikidetza-unitateak hileko 2.500 €-tik beherako diru-sarrerak izatea. • Bizikidetza-unitateak 30.000 €-tik beherako kapital higigarria izatea.
Plaza kopurua		
Koordainketa	Bai	
Araua/ordenantza	Bai	Profil sozio-sanitarioko pertsonen etxebizitzak birgaitu eta egokitzeko eta etxe- ekipamendu funtzionala erosteko diru-laguntzak ematea arautzen duen ordenantza.
Oharrak		



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Zerbitzuaren izena: PORROT EKONOMIKOA EGITEKO ARRISKUAN DAUDEN FAMILIEI LAGUNTZEKO PLAN INTEGRALA
Zk.: 1.1.2.2

Definizioa eta helburua	• Erantzun integral bat antolatzea, udalerrian krisi ekonomiko luzearen ondorioz porrot ekonomikoa egiteko arriskurik handienean dauden familien arazoei aurre egiteko.	
Zerbitzu motak	• Prestazio ekonomikoak eta elikagaien bankua. • Aholkularitza juridiko, ekonomiko eta finantzarioko zerbitzua. • Laguntza psikologikoko zerbitzua. • Larrialdiko etxebizitzak.	
Aldaerak	Ez	
Prestazioak	Gizarte Zerbitzuenak	• Informazioa. • Balioespena eta gizarte-diagnostikoa. • Jarraipenaren balioespena. • Orientabidea. • Lagun-egite soziala. • Baliabideen kudeaketa.
Hartzaileak	Egoera	• Bat-batean gertatutako egoera baten ondorioz egoera hauetako batean dauden udalerriko pertsonak eta familiak: - Langabezian egotea, prestazioa jasotzen edo jaso gabe, eta euren diru-sarrerak txikitzea. - Euren betebeharrak edo zorrak ordaintzeko arazo handiak izatea. - Euren arazo ekonomikoei aurre egiteko aholkularitzarik ez izatea. - Egoera ekonomikoak osasun fisikoko eta psikologikoko arazoak sortzea, eta, horren ondorioz, laguntza espezializatua behar izatea.
	Adina	18 urtez gorakoak.
Lortzeko baldintzak	Administrazioko ak	1) <u>OINARRIZKOAK:</u> Errolda • Bizikidetza-unitateko pertsonak urtebete baino gehiago egon beharko dute udalerrian erroldatuta. • Eskabidea aurkeztu aurreko hiru urteetan, EAEn erroldatuta egotea eta benetan bizitzea, edo aurreko 10 urteetan bost urte jarraian, EAEko

		edozein udalerritan benetan bizitzea. Bizikidetza-unitateak • Bizikidetza-unitate independentea sortu zenetik urtebete igarotzea, gutxienez ere. Ondarea • Ohiko etxebizitzaz bestelako ondasun higiezinik ez izatea. • 8.000tik beherako ondasun higigarriak izatea. 3) SALBUESPENEZ: Ezarritako irizpide horiek oinarritzko euskarri bat osatzen dute. Hala ere, kudeatzen diren egoerak ohiz kanpokoak direla kontuan hartuta, irizpide profesionaleri jarraituta egindako balioespenari emango zaio lehentasuna.
	Premiazkoak	1) <u>OINARRIZKOAK:</u> Lan-arlokoak • Enplegua bat-bateko kausaren (enpresa edo negozioa ixtea, langile kopurua txikitzea, bizikidetza-unitateko pertsona sostengatzailea gaixotzea edo hiltzea...) baten ondorioz galtzea. • Krisi ekonomikoa hasi arte lan-ibilbide erregularra izatea; hau da, 2008. urtea baino lehen langabezian urtebetez edo gehiagoz ez egotea, justifikatutako egoeretan izan ezik. • Bost urteko lan-jarduera egiaztagarria izatea (ezin dira langabezia- edo subsidio-aldiak aintzat hartu). <u>Bizitza-baliabideak</u> • 2010. urteaz geroztik, bizitza-baliabide ekonomiko guztiak DSBEa, GLLak eta GULak ez izatea. • Derrigorrez bete beharreko ordainketak



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

		(hipoteka, alokairua, banku-kredituak, Ogasunarekiko zorrak, Gizarte Segurantzarekiko zorrak, elikadura-pentsioa, etab.) gutxitu ondoren, DSBEari dagozkionak baino diru-sarrera txikiagoak akreditatzea. 2) SALBUESPENEZ: Ezarritako irizpide horiek oinarritzko euskarri bat osatzen dute. Hala ere, kudeatzen diren egoerak ohiz kanpokoak direla kontuan hartuta, irizpide profesionalei jarraituta egindako balioespenari emango zaio lehentasuna.
Koordinaketa	Ez	
Araudia	Bai	• Porrot ekonomikoa egiteko arriskuan dauden familiei laguntzeko Plan Integralean inskribatutako bizikidetza-unitateei Ermuko Udalarenak diren etxebizitzaren erabilera lagatzea arautzen duen Ordenantza (2013). • Alkatearen Dekretua, 2013ko martxoaren 19koa, aholkularitza juridiko, ekonomiko eta finantzarioko zerbitzua martxan jartzea onartzeko.
Oharrak		



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Zerbitzuaren izena: GIZARTE LARRIALDIKO LAGUNTZAK
Zk.: 1.1.2.3

Definizioa eta helburua	Prestazio ekonomikoak dira, ez dira aldizkakoak, eta diru-laguntza gisa ematen zaizkie pertsoneri; alegia, gizarte-bazterkeria prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko behar diren gastu espezifikoak, ohikoei nahiz ezohikoei, aurre egiteko nahikoa baliabiderik ez duten pertsonak.	
Zerbitzu motak	GLLak	
Aldaerak	Ez	
Prestazioak	Gizarte Zerbitzuak	• Informazioa. • Kudeaketa. • Jarraipena.
Hartzaileak	Egoera	GLLen onuradunak izan daitezke GLLei buruzko urtarilaren 18ko 4/2011 Errege Dekretuaren 5. artikuluan eta Udalak urtero arlo horretan onartzen duen araudian ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten pertsonak.
	Adina	18 urtez gorakoak.
Lortzeko baldintzak	Administraziokoak	GLLen kasuan, GLLei buruzko urtarilaren 18ko 4/2011 Errege Dekretuaren 5. artikuluan eta Udalak urtero arlo horretan onartzen duen araudian ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten pertsonak.
	Premiazkoak	Gizarte-bazterkeria prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko behar diren gastu espezifikoak, ohikoei nahiz ezohikoei, aurre egiteko nahikoa baliabiderik ez izatea.
Koordinaketa	Ez	
Araudia	Bai	• 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko. • 4/2011 Legea, azaroaren 24koa, Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko Legea aldatzen duena. • 4/2011 Dekretua, urtarilaren 28koa, Gizarte Larrialdiko Laguntzei buruzkoa. • 16/2017 Dekretua, urtarilaren 17koa, Gizarte Larrialdiko Laguntzei buruzko Dekretua aldatzen duena. • Eusko Jaurlaritzaren urteko agindua. • Alkatearen urteko dekretua, GLLak banatzeko udal-irizpideak arautzen dituena.

--	--	--



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

1.2. ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Zerbitzuaren izena: ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA
Zk.: 1.2.1.1

Definizioa eta helburua	Etxez etxeko laguntza-zerbitzua eguneroko funtsezko jarduerak egiteko zailtasunak dituzten pertsona edo familientzako gizarte-izaerako zerbitzu publiko integrala da, balio anitzekoa eta komunitarioa, banakako prebentzio-, laguntza- eta errehabilitazio-programa baten bitartez, haien ongizate fisiko, psikiko eta soziala berreskuratzeko, bakoitzaren ohiko ingurunean jarraitzen laguntzeko asmoz etxean bertan zuzenean arreta emanik.	
Zerbitzu motak	• Etxez etxeko laguntza. • Arreta pertsonala. • Etxez etxeko oturuntzak.	
Aldaerak		
Prestazioak	Gizarte Zerbitzuenak	• Informazioa eta orientabidea. • Gizarte-diagnostikoa. • Jarraipenaren balioespena. • Lagun-egite soziala. • Etxez etxeko laguntza. • Arreta pertsonala. • Etxez etxeko oturuntzak.
Hartzaileak	Egoera	Autonomia mugatuta eta mendekotasuna onartuta daukaten eta Ermuan bizi diren familientzat edo bakarrik bizi diren pertsonentzat.
	Adina	Adin-mugarik gabe.
Lortzeko baldintzak	Administraziokoak	• Eskabidea aurkeztu baino urtebete lehenago gutxienez Ermuan erroldatuta egotea. Bestela, erroldatuta dagoen pertsona baten etxean aldi batera bizitzea eta, autonomia galduta duenez, etxean bertan zuzeneko eta banakako arreta behar izatea, bere ongizate fisikoa, emozionala edo afektiboa mantentzeko edo berreskuratzeko zailtasunak dituelako. • Mendekotasuna onartuta izatea.
	Premiazkoak	• Eguneroko funtsezko jarduerak egiteko zailtasunak dituen pertsona edo familia bat izatea. • Etxebizitzaren kokalekuak zerbitzua hartan ematezko arazorik ez sortzea.

		• Etxean baldintza egokietan jarraitzeko beste laguntza batzuk izatea.
Plaza kopurua		
Koordinaketa	Bai	
Araua/ordenantza	Bai	21. ordenantza fiskala. Etxez etxeko laguntza zerbitzua egiteagatiko tasa.
Oharrak		



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

1.3. GIZARTE ETA HEZKUNTZA ARLOAN ETA ARLO PSIKOSOZIALEAN ESKU HARTZEKO ZERBITZUA

1.4.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Zerbitzuaren izena: GIZARTE ETA HEZKUNTZA ARLOAN ETA ARLO PSIKOSOSIALEAN ESKU HARTZEKO ZERBITZUA
Zk.: 1.3.1.1

Definizioa eta helburua	Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean laguntzeko harreman-prestazioen (banakakoak, familiakoak edo taldekoak) multzo batez arduratzen den zerbitzua. Prestazio horiek familiaren bizilekuan zein Ermuko udal-instalazioetan eta ikastetxeetan gara daitezke. Helburuak: • Autonomiaz moldatzea eta gizarteratzea bultzatuko duten gaitasun pertsonalak, familiakoak edo taldekoak (jarrerak, gaitasunak, jakintzak, irizpideak, jarraibideak, trebetasunak) eskuratzen eta garatzen laguntzea. • Ohitura, portaera, pertzepzio, sentimendu eta jarrera desegokiak beste egoki batzuekin ordezkatzeko laguntzea.
Zerbitzu motak	a) Familien Arretarako Zerbitzua: - <i>Banakakoak/familiarak:</i> Behar zehatzetara egokitutako esku-hartzeak, banakakoak zein familiarak. - <i>Taldekoak:</i> ✓ <i>Gazte-txokoak:</i> taldeko programak, adin-tarteen arabera antolatuak (6-9, 10-12, 13-16), gizarte- eta harreman-gaitasunak sustatzeko. ✓ <i>Gizarte-taldekoak:</i> Gizarte Zerbitzuen esku-hartze bat jasotzen ari diren pertsonak izan ditzaketen premia edo behar komunei –gizarte-, hezkuntza-, emozio- edo harreman-arlokoiei– erantzuteko programak. Adibidez: ➤ Bakardadea hazkuntzan: familia batean pertsona bat soilik hazkuntza-lanez arduratzen bada, eta horrek zailtasunik sortzen badu. ➤ Nork bere burua zaintzea, besteak zaintzeko: mendeko pertsonak zaintzen dituzten pertsonentzat. b) Arreta Komunitarioko Zerbitzua: gizarte- eta hezkuntza-komunitatean (familiak, ikasleak, irakasleak) garatutako jarduerak (prebentziokoak edo esku-hartzekoak): - <i>Familiak:</i> ✓ <i>Gurasoak eta gizarte- eta hezkuntza-arloko profesionalak elkartzeko gela:</i> adingabeen gizarte- eta hezkuntza-garapena

	ahalbidetzen duten tresnak ematea. - <i>Ikasleak:</i> ✓ <i>Lagunak eta ni ezagutzen:</i> Lehen Hezkuntzako ziklo bakoitzeko lehen mailan (1., 3. eta 5. mailan) egin beharreko programa, taldearen kohesioa eta elkarbizitza hobetzeko. ✓ <i>Zer gertatzen ari zait?</i> Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako maila bakoitzean (1., 2., 3. eta 4. mailan) egin beharreko programa, nerabezaroaren berezko arazoei aurre egiteko trebetasunak sustatzen dituen. ✓ <i>Gatazken konponbidea:</i> ikastetxeak eskatuta, harreman- eta elkarbizitza-zailtasunak dauden ikasgeletan egiteko programa. - <i>Irakasleak:</i> orientabidea eta aholkularitza irakasleentzat.	
Aldaerak	Eskabidea egiten denean Gazte-txokoak talde-programan lekurik ez badago, Familien Arretarako Zerbitzuak esku hartzeko beste modalitate batzuetara jo ahal izango du.	
Prestazioak	Gizarte Zerbitzuenak	• Informazioa. • Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea. • Esku-hartze psikosoziala. • Jarraipenaren balioespena. • Lagun-egite soziala.
Hartzaileak	Egoera	a) Familien Arretarako Zerbitzua. • Babesgabetasun-arriskuko egoera arinean edo neurrizkoan dauden adingabeak dituzten familiak. • Gizarte-, harreman-, emozio- eta hezkuntza-zailtasunak dituzten familiak edo pertsonak. • Mendekotasun-arriskuan dauden pertsonak. • Gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden pertsonak.
	Adina	a) Familien Arretarako Zerbitzua: - Banakakoak/familiarrak: Adin-mugarik gabe. - Gazte-txokoak. Hiru talde, adinaren arabera bereizten direnak: 6-9 urte, 10-12 urte, 13-16 urte. b) Arreta Komunitarioko Zerbitzua: adin-mugarik gabe. Ikasleentzat egiten diren programen



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

		kasuan, ikasmaila zehatzetarako dira.
Lortzeko baldintzak	Administraziokoak	Udalerrian erroldatuta egotea eta benetan bizitzea. Babesgabetasun-arriskuko egoera arinean edo neurrizkoan dauden adingabeen kasuan, ez da beharrezkoa izango baldintza hori betetzea.
	Premiazkoak	Hezkuntza-laguntza edota laguntza psikosoziala behar izatea: • Familiaren edo taldearen elkarbizitza hobetzeko. • Familiako kideak zaintzeko trebetasunak hobetzeko. • Autonomiaz errazago moldatzeko.
Plaza kopurua		Familien Arretarako Zerbitzua: - Gazte-txokoak: talde bakoitzean, 10 parte-hartzaile, gehienez. - Gizarte-taldekoak: Taldea osatzeko, 5 pertsona behar dira gutxienez, eta 10 pertsona gehienez. Arreta Komunitarioko Zerbitzua: - Gurasoak eta gizarte- eta hezkuntza-arloko profesionalak elkartzeko gela: talde bakoitzean, 6 parte-hartzaile, gutxienez.
Koordainketa	Ez	
Araua/ordenantza	Ez	
Oharrak		• 230/2011 DEKRETUA, azaroaren 8koa, BALORA-Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udaleko eta lurraldeko gizarte-zerbitzuetan arrisku-egoeren larritasuna balioesteko tresna onesten duena. • 3/2005 LEGEA, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoa.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Zerbitzuaren izena: BITARTEKOTZA ZERBITZUA.

Zk.: 1.3.1.2

Definizioa eta helburua	Udaleko gizarte-zerbitzuek pertsonei eta familiei laguntzeko ematen dituzten harreman-prestazioen multzoaren barruan, bitartekotza familietan gerta daitezkeen gatazkak kudeatzeko esku-hartze eraginkortzat hartzen da. <i>Bitartekotza isilpeko eta borondatezko prozesu bat da, gatazkak konpontzeko helburua duena. Prozesu horretan, hirugarren batek, bitartekariak, neutraltasunez eta inpartzialtasunez, elkarrekin modu egokian eta positiboan komunikatzen laguntzen die pertsonei, parte-hartzaile guztientzat pozgarriak eta onargarriak diren akordioak lor ditzaten.</i> Bitartekotza-prozesuan, pertsonak euren arazoen ardura hartzeko gai izatea da helburua, haiek baitira euren gatazken konponbiderik onenak proposa ditzaketenak. Helburuak: Herritarrei familia-bitartekotzako zerbitzu bat eskaintzea eta bermatzea, familiaren barruan sortzen diren gatazkak judizior kanpo konpontzeko prozedura gisa.	
Aldaerak	Ez	
Prestazioak	Gizarte Zerbitzuenak	Informazioa.
		Balioespena eta diagnostikoa.
		Esku-hartze Planaren diseinua.
		Bitartekotza-prozesua formalizatzea eta hastea.
		Akordio-akta egitea, eta prozesua amaitzea.
Hartzaileak	Bideratzea (behar izanez gero, beste baliabide batzuetara).	
	Egoera	• <u>Bitartekotzaren bidez konpon daitezkeen familia-gatazkak:</u> 1. Bikote-gatazkak (haustura-dibortzioa, desadostasunak hazkuntzan, elkarrekin bizitzeko zailtasunak...). 2. Belaunaldien arteko gatazkak (seme-alaba txikiekin, nerabeekin, seme-alaba helduekin, aitona-amonekin...). 3. Mendeko pertsonak zaindu beharrak eragindako gatazkak.
	Adina	18 urtetik gorako pertsonak edo legez emantzipatutako gazteak.

Lortzeko baldintzak	Administraziokoak	Gizarte Zerbitzuen Legearen 3. artikuluko titulartasun-baldintza orokorrak. Ermuko biztanleak, erroldatuta daudenak. Oro har, familia barruko indarkeria-kasuetan, ezin da bitartekotza egin (salbuespenetarako, teknikarien agindua beharko da, edo, beharrezkoa denean, beste erakunde batzuetara bideratuko da kasua).
	Premiazkoak	Bitartekotza honetarako behar izatea eta eskatzea: a) Familiaren elkarbizitza hobetzeko. b) Familiako kideen arretak eta zaintzak hobetzeko.
Koordinaketa	Ez	
Ezaugarriak	Orokorrak	Doako zerbitzua.
	Espezifikoak	Iraupen jakinekoa (4-8 saio).



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Zerbitzuaren izena: ADIKZIOEN PREBENTZIO KOMUNITARIOKO PROGRAMA
Zk.: 1.3.1.3.

Definizioa eta helburua	Plan honen helburu nagusia adikzioen fenomenoarekin lotutako errealitateei aurre egitea eta horiei erantzutea da, herritarren autonomia eta asertibitatea erraztuz.	
Zerbitzu motak	• Prebentzio unibertsal komunitarioa: Herritar guztientzat egindako jarduerak. • Prebentzio selektiboa: Prebentzio-tailerrak ikasleentzat, batik bat Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat. Ikastetxeak eskatuta eta erabil daitekeen aurrekontuaren arabera jartzen dira martxan. Iraupen desberdineko tailerrak, ikastetxeen beharren/balioespenen arabera. • Prebentzio adierazia: Banan-banako arreta bulegoan.	
Aldaerak	Ikastetxeek premia baten berri eman dezakete, eta hari erantzuteko jarduera/tailer bat egiteko aukera aztertu.	
Prestazioak	Gizarte Zerbitzuenak	• Prebentzio unibertsala: - Santiago jaietako kanpaina. - Hiesaren Eguna. - Alkoholik gabeko Nazioarteko Eguna. • Prebentzio selektiboa: - Hiesaren Eguna. - Irudi Berria. - Alkoholaren arriskuak. - Mimo-antzerkia. - Kanabisaren kontsumoaren prebentzioa. - Online Zurekin. - Alkoholik gabeko Nazioarteko Eguna. • Prebentzio adierazia: - Emakume kontsumitzaileen arreta. - Adingabeen alkohol-kontsumoa.
Hartzaileak	Egoera	• Biztanle guztiak. • Lehen aipatutako prebentzio-tailerrak egin nahi dituzten Ermuko ikastetxeak. • Adikzio-zailtasunak (substantziekin edo gabe) dituzten pertsonak.
	Adina	Adin-mugarik gabe.

Lortzeko baldintzak	Administrazioko ak	Udalerrian erroldatuta egotea.
	Premiazkoak	• Prebentzio- eta sentsibilizazio-beharrak. • Adikzioekin lotutako kontsumo-arazoak dituzten pertsonen arreta-beharra.
Plaza kopurua		
Koordinaketa	Ez	
Araudia		• 1/2016 Legea, apirilaren 7koa, Adikzioen eta droga-mendekotasunen gaineko arreta integralari buruzkoa. • Euskal Autonomia Erkidegoko Adikzioen VI. Plana.
Oharrak		



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

1.5. ZAINZAILEEI LAGUNTZEKO ZERBITZUA



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Zerbitzuaren izena: ZAINZAILEEI LAGUNTZEKO PROGRAMA

Zk.: 1.4.1.1.

Definizioa eta helburua	Zerbitzu honek mendetasun-arriskuan edo mendetasun-egoeran dauden pertsonen gizarte- eta familia-arloko babes emateko sarea osatzen duten zaintzaileei aukera ematen die zaintzarako eta norberaren zaintzarako jakintzak, jarrerak eta trebetasunak eskuratzeko. Honako helburu hauek ditu: • Zaintzaileek eskainitako zainketen kalitatearen hobekuntza bultzatzea. • Zaintzaile nagusien bizi-kalitatearen hobekuntza bultzatzea. • Beste zaintzaile batzuen erantzunkidetasuna bultzatzea. • Zaintzarako eta norberaren zaintzarako jakintzak, jarrerak eta trebetasunak eskuratzeko aukera ematea.	
Zerbitzu motak	• Hitzordu presentzialak. • Laguntza- eta prestakuntza-taldeak.	
Aldaerak		
Prestazioak	Gizarte Zerbitzuenak	• Informazioa, kudeaketa eta jarraipena. • Zaintzaileei laguntzeko taldeak. • Erlaxazio-tailerrak zaintzaileentzat.
Hartzaileak	Egoera	Mendetasun-egoeran dauden pertsonen zaintzaile ez-profesionalak, zaintzaile nagusiak diren edo ez kontuan izan gabe.
	Adina	18 urtez gorakoak.
Lortzeko baldintzak	Administraziokoak	Senideak zein mendeko pertsona Ermuko udalerrian errolatuta egotea eta benetan bizitzea.
	Premiazkoak	• Norbera zaintzeko eta/edo zaintza-lanak egiteko laguntza behar izatea. • Hala badagokio, zaintzeko informazioa, orientabidea eta/edo prestakuntza behar izatea eta haren erantzunkidetasuna (zaintzaileak, egungoak edo zaintzaile izan daitezkeenak eta zaintzaile nagusiak ez direnak) areagotzea.
Plaza kopurua	• Laguntza- eta prestakuntza-taldeak: 15 leku. • Erlaxazio-tailerra: 25 leku.	

Koordainketa	Ez	
Araua/ordenantza		
Oharrak		



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Zerbitzuaren izena: LAGUNTZA PRODUKTUAK UZTEKO ZERBITZUA
Zk.: 1.4.1.2.

Definizioa eta helburua	Laguntza-produktuak uzteko zerbitzu bat ematea, erabiltzaileek euren eguneroko bizitzako jardueretan dituzten urritasunak edo mugak prebenitzeko, konpentsatzeko, kontrolatzeko, arintzeko edo ezabatzeko.	
Zerbitzu motak		
Aldaerak		
Prestazioak	Gizarte Zerbitzuenak	• Informazioa. • Kudeaketa. • Jarraipena.
Hartzaileak	Egoera	Mendeko pertsonak, urritasuna duten pertsonak edo aldi baterako patologiak dituzten pertsonak, eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko mugak dituztenak.
	Adina	Adin-mugarik gabe.
Lortzeko baldintzak	Administraziokoak	• Ermuko udalerrian erroldatuta egotea eta benetan bizitzea. • Produktuak uzteko eskabidean egitean gizarte-babeseko beste sistema batzuen (Osasuna edo Aldundia) bidez produktuaz gozatzeko eskubiderik ez izatea. • Eskatutako produktua erosteko diru-laguntzarik edo laguntza ekonomikorik jaso ez izana.
	Premiazkoak	• % 33ko urritasun-maila edo handiagoa edo edozein mailatako mendetasuna aitortua izatea, edo mediku-txosten baten bidez laguntza-produkturen bat behar izatea eragiten duen patologiak egiaztatzea. • Egoitza edo ospitale batean ez egotea. • Etxebizitzako baldintzak produktuen erabilera ahalbidetzea. • Utzitako laguntza-produktua zuzen erabiltzen dela arduratzen den pertsona bat egotea.
Plaza kopurua		
Koordainketa	Ez	
Araua/ordenantza	Laguntza-produktuak uzteko zerbitzua erabiltzeko araudia.	

Oharrak		



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Zerbitzuaren izena: ATSEDEN TERAPEUTIKORAKO ZERBITZUA MENDEKO PERTSONENTZAT ETA ZAINZAILLEENTZAT
Zk.: 1.4.1.3.

Definizioa eta helburua	• Mendeko pertsonak zaintzen jarraitu nahi duten senideei noizean behin atsedeen hartzeko aukera ematea. • Mendeko pertsonak ingurune profesional batean zaintzea, eta hartan haien gaitasun psikofisikoak hobetzeko esku-hartzeak egitea.	
Zerbitzu motak		
Aldaerak		
Prestazioak	Gizarte Zerbitzuenak	• Informazioa. • Kudeaketa. • Jarraipena. • Koordinazioa.
Hartzaileak	Egoera	Mendeko pertsonak eta haien senideak.
	Adina	Adin-mugarik gabe.
Lortzeko baldintzak	Administraziok oak	Ermuko udalerrian erroldatuta egotea eta benetan bizitzea.
	Premiazkoak	• Mendetasun-maila bat aitortua izatea. • Egoitza edo ospitale batean ez egotea. • Eguneko zentro batean plazarik ez izatea.
Plaza kopurua	Bai	15 pertsona. Bost talde dira, eta, bakoitzean, hiru pertsona egongo dira.
Koordainketa	Ez	
Araua/ordenantza	Ez	
Oharrak		



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

1.6. GIZARTE ZERBITZUEN EREMUKO PARTE HARTZEA ETA GIZARTERATZEA SUSTATZEKO ZERBITZUA



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Zerbitzuaren izena: GIZARTE ERAKUNDEENTZAKO ETA HIRUGARREN SEKTOREKO ERAKUNDEENTZAKO LAGUNTZA ETA DIRULAGUNTZA PROGRAMA
Zk.: 1.5.1.1.

Definizioa eta helburua	Diru-laguntzen helburua ekintza sozialeko edo soziosanitarioko jarduerak Ermuan garatzen duten irabazi-asmorik gabeko elkarteei laguntza ekonomikoa ematea, euren jarduerak egin ditzaten. Hona hemen elkarte horiek egin ditzaketen jarduerak batzuk: • Informazioa. • Orientabidea. • Lagun-egitea. • Sentsibilizazioa.	
Zerbitzu motak		
Aldaerak		
Prestazioak	Gizarte Zerbitzuenak	• Erakundeak aurkeztutako proiektua jasotzea, aztertzea eta balioestea. • Erakundeak aurkeztutako jarduerak justifikatuta dagoela egiaztatzea.
Hartzaileak	Egoera	Ekintza sozialeko edo soziosanitarioko jarduerak Ermuan garatzen duten irabazi-asmorik gabeko elkarteak.
	Adina	
Lortzeko baldintzak	Administraziok oak	Erakundeek euren figura juridikoari dagokion erregistroan erregistratuta egon beharko dute.
	Premiazkoak	Ermuko pertsonekin arlo hauetako jarduerak egitea: - Ekintza soziala. - Ekintza soziosanitarioa. - Hezkuntza.
Plaza kopurua		
Koordinaketa	Ez	
Araua/ordenantza	Bai	• Laguntzak eta diru-laguntzak emateko irizpideak eta prozedura arautzen dituen ordenantza. • Ekintza sozialeko edo soziosanitarioko laguntzak edo diru-laguntzak emateko oinarri espezifikoak.
Oharrak		



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

1.7.1. EGUNEKO ARRETARAKO ZERBITZUAK

1. MOTA



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

**Zerbitzuaren izena: OROIMENA ETA PSIKOMOTRIZITATEA LANTZEKO TAILERRA
ADINEKOENTZAT
Zk.: 1.7.1.1.**

Definizioa eta helburua	Adineko pertsonen autonomia pertsonalari eusten laguntzea, mendetasun-egoerak atzeratuz eta etxean ahalik eta denbora gehiena egon daitezen bideratuz.	
Zerbitzu motak		
Aldaerak		
Prestazioak	Gizarte Zerbitzuenak	• Informazioa. • Jarraipenaren balioespena. • Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea. • Lagun-egite soziala.
Hartzaileak	Egoera	Gizarte-laguntza txikia duten edota etxean bakarrik denbora luzea ematen duten 80 urtetik gorako pertsonak, isolamendua eta gizarte-deslotura saihesteko.
	Adina	80 urtez gorakoak.
Lortzeko baldintzak	Administraziokoa	Ermuko udalerrian erroldatuta egotea eta benetan bizitzea.
	Premiazkoak	• 80 urte edo gehiago izatea eta bakarrik edo adineko pertsonekin bizitzea. • Ahulezia-egoeran (oso adin aurreratua, patologia asko...) dauden adinekoak. • Dementia bat (Alzheimerra edo beste mota batekoa) diagnostikatuta ez izatea edo jokabidea aldatzea (agresibitatea, noraezean ibiltzea, etab.) eragiten duen patologiarik ez izatea.
Plaza kopurua		10 pertsona tailer bakoitzean.
Koordinaketa	Ez	
Araua/ordenantza	Ez	
Oharrak		



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Zerbitzuaren izena: JUBILATUEN ETXEA
Zk.: 1.7.1.2.

Definizioa eta helburua	Jubilatuen eta pentsiodunen udal-etxeak, Ermuko Nagusien Elkarteak kudeatzen duenak, helburu hau du: "Ermuko pertsona nagusi, jublatu eta pentsionista guztiei zuzendutako zerbitzu- eta harrera-zentroa, ustezko erabiltzaile bakoitzaren berariazko baldintzez gain eta izaera ez-politiko eta ez-konfesionalean". Halaber, Udal Egoitzak ondoko helburu zehatz hauek ere baditu: 1. Hirugarren adinekoentzat zerbitzu sozial eta asistentzial propioak sustatzea eta, horretarako, zerbitzuen erabiltzaile izan daitezkeen beharrak aurreikustea. 2. Ekintza sozial eta kulturalak sustatzea, bereziki aisialdikoak. 3. Pertsona nagusien integrazioa erraztea, udalerriko bizitza sozialean parte har dezaten. 4. Pertsona nagusien irudi baikorra sustatzea herritarren artean.	
Zerbitzu motak		
Aldaerak		
Prestazioak	Gizarte Zerbitzuenak	Informazioa eta orientabidea. Zerbitzu publikoen erabilera.
Hartzaileak	Egoera	Adineko, jublatu eta pentsiodunak.
	Adina	65 urte baino gehiago dituzten pertsonak, edo gutxiago, pentsiodunen kasuan.
Lortzeko baldintzak	Administraziokoak	Bazkide-txartela lortzea.
	Premiazkoak	Baldintza gehiagorik ez.
Plaza kopurua	Aldi berean, 260 pertsonak erabil dezakete.	
Koordainketa	Bai	Bazkide-kuota.
Araua/ordenantza	Bai	Etxeko erregelamendua.
Oharrak	Ermuko Nagusien Elkarteak kudeatzen du Etxea. Udalak lokalak erabiltzea uzten dio (eta mantentze-lanen eta energia-horniketaren gastuak ordaintzen ditu) eta, urtero, diru-laguntza izendun bat ematen dio.	

1.7.2. EGUNEKO ARRETARAKO ZERBITZUAK

2. MOTA



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Zerbitzuaren izena: ELIKAGAIEN BANKUA
Zk.: 1.7.2.1.

Definizioa eta helburua	Laguntzeko programa edo baliabide integrala da, esku-hartze espezifiko eta komunitarioen bidez garatzen dena. Esku-hartze horiek Gizarteratzeko Udal Planaren baitakoak dira, eta Europar Batasuneko Laguntza Planak sustatzen ditu.	
	Helburuak	Helburuak
	Zailtasun ekonomikoak dituzten pertsonak gutxieneko elikadura egokia dutela bermatzea.	Herritarrek gizarte-arazoetan parte har dezaten sustatzea.
Zerbitzu motak		
Aldaerak		
Prestazioak	Arreta espezifikoa	Arreta komunitarioa
	Elikagaien Bankuak Europar Batasuneko Elikagaien Programaren baitan ematen dituen elikagaiak (janari sortak hilerio ematen dira) kudeatzea eta banatzea.	Sentsibilizazio-kanpainak. Jarduera eta ekimen komunitarioak.
Hartzaileak	Oinarrizko iraupen- eta elikadura-beharrak asetzeko zailtasun ekonomikoak dituzten pertsonak.	Ermuko biztanleak. Elkarteak. Kolektibo komunitarioak. Ekimen pribatuak. Ikastetxeak/guraso-elkarteak. Beste batzuk (pertsona fisikoak).
	Adina	18 urtetik gorako pertsonak edo legez emantzipatutako gazteak.
Lortzeko baldintzak	- 18 urtetik gorako pertsonak edo legez emantzipatutako gazteak. - Diru-sarrerarik gabeko bizikidetza-unitateak/pertsonak. - DSBetik beherako diru-sarrerak dituzten bizikidetza-unitateak/pertsonak.	Ez da bestelako baldintzarik behar.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

	- DSBEda jasotzen duten eta ardurapean hiru pertsona edo gehiago dituzten bizikidetza-unitateak/pertsonak. - Udalerrian erroldatuta egotea (denbora-minimorik gabe). - Udallerriak benetan bizitzea. - Porrot Ekonomikoa Egiteko Arriskuan dauden Familiei Laguntzeko Plan Integraleko onuradunak. - Ezohiko egoerak (elkarbizitzako arazoak).	
Plaza kopurua		
Koordainketa	Ez	
Araua/ordenantza	12/2008 LEGEA, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. 185/2015 DEKRETUA, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa. BOE- A- 2015-2042 Europar Batasuneko Laguntza Plana. FEAD programa eragilea. 38/2015 zirkularrak, Gizarte-egoerarik ahulenean dauden pertsonen laguntzeko Europako funtsari buruzkoa (FEAD 2014-2020).	
Oharrak	Baliabideak eta eragileak: Bizkaiko eta Bergarako elikagaien bankua. Gurutze Gorria (boluntarioak). Ermuko Udaleko Gizarte Zerbitzuak. Elkartasunerako Udal Kontseilua.	

Zerbitzuaren izena: ETXERIK GABEKO PERTSONEI LAGUNTZEKO ZERBITZUA
Zk.: 1.7.2.2.

Definizioa eta helburua	Etxerik gabeko pertsonen edo parekatuei laguntzeko udal-programa honek gizarte-egoerarik ahulenei erantzuten die. Horretarako, zerbitzuak eta baliabideak sortzen ditu gizarte-bazterkeriaren prozesuen fase bakoitzean. Xedea: Eguneko zentroko zerbitzuak etxerik gabeko pertsonen egunez laguntzeko ekipamenduak dira. Haietan, pertsona horien oinarritzko informazio- eta orientabide-beharrak asetzen dira. Gainera, zerbitzu horiek gizarte-bazterkeria prebenitzeko planak aktibatzen etaosatzen laguntzen dute.	
Zerbitzu motak		
Aldaerak		
Prestazioak	Oinarritzkoak. Laguntzakoak.	Dutxak eta norberaren higieena.
		Jantzitegia.
		Kontsigna.
		Beste batzuk: garbitegirako txartela, garraio-txartela...
	Osagarriak. Sozialak.	Informazioa, orientabidea.
		Diagnostiko-balioespena.
		Lagun-egite soziala.
		Beste baliabide batzuetara bideratzea.
		Jarraipena.
Hartzaileak	Egoera	Gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonak. Etxerik gabeko pertsonak, bizileku-bazterkeriako egoeran daudenak: - Etxerik ez duten eta kalean bizi diren pertsonak. - Baldintza onartezinetan dauden lekuetan (etxolak, gelak...) bizi diren pertsonak.
	Adina	18 urtetik gorako pertsonak edo legez emantzipatutako gazteak.
Lortzeko baldintzak	Administraziokoak	Teknikarien agindua izan ezik, ez da inolako baldintzarik eskatuko. Oinarritzko Gizarte Zerbitzutik igarotzen ez direnek ere zerbitzua erabili ahal izango dute. Zerbitzuaren erabilera-arauak onartu beharko



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

		dira.
	Premiazkoak	Zerbitzu honen bidez erantzuten zaien premien estaldurarako intentsitate txikiko babesa behar izatea (garbiketa, dutxa, kontsigna, garraio-txartela...). a) Jokabide-nahasterik ez izatea eta/edo zerbitzuaren funtzionamendua edo zerbitzuko bizikidetza normala larriki nahas dezakeen edota pertsonarentzat berarentzat, beste erabiltzaile batzuentzat edo profesionalentzat arriskutsua izan daitekeen portaerarik ez agertzea. b) Zerbitzuaren berezko zuzkiduren irismenetik eta aukeretatik kanpo dagoen osasun-laguntza espezializatu eta/edo iraunkorrik behar ez izatea.
Plaza kopurua		
Koordainketa		
Araua/ordenantza		- 12/2008 LEGEA, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. - 185/2015 DEKRETUA, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa.
Oharrak		

Zerbitzuaren izena: GIZARTERATZEKO UDAL PRESTAZIO EKONOMIKOA
Zk.: 1.7.2.3.

Definizioa eta helburua	Laguntza-, prebentzio- eta sustapen-izaerako programa bat da, pertsonen inklusio pertsonala, soziala eta ekonomikoa bermatzeko. Horretarako, tresna eta prestazio sozioekonomikoak erabiltzen dira, esku-hartze sozialaren esparruan pixkanaka garatzen direnak. Helburua: Bizimodu independentea izatekoa nahikoa baliabide ekonomiko ez duten pertsonen gizarte-bazterkeriako arrisku-egoerak prebenitzen edota arintzen laguntzen duten prestazio ekonomikoak ezartzea eta arautzea.	
Zerbitzu motak		
Aldaerak		
Prestazioak	Lehen mailako beharrak (elikadura edota oinarritzko beharrak)	Hileko zenbatekoa, pertsona kopuruaren arabera: Pertsona bat - 150 € 2 pertsona - 200 € 3 pertsona - 250 € 4 pertsona - 300 € 5 pertsona edo gehiago - 350 €
	Ostatua (modalitate guztietan)	250 €/hil, gehienez ere.
Hartzaileak	Egoera	Behin diagnostikoa egin eta gero, pertsona gizarte-bazterkeriako arriskuan dagoelako zantzuak egotea, arriskua eta premia-egoerak baloratzeko ohiko tresnetan erabiltzen diren definizioak kontuan hartuta.
	Adina	18 urtetik gorako pertsonak edo legez emantzipatutako gazteak.
Lortzeko baldintzak	Administraziokoak	-Eskabidea aurkeztu baino hiru hilabete lehenago gutxienez Ermuan erroldatuta egotea. - Bizikidetza-unitate independenteen kasuan, eskabidea aurkeztu baino bederatzi hilabete lehenago gutxienez Ermuan erroldatuta egotea. - Teknikarien agindua (txosten soziala).
	Premiazkoak	- Gutxieneko premia batzuk (janaria, arropa eta higiene-produktuak) asetzeko laguntza asistentziala eta ekonomikoa behar izatea eta



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

		eskatzea. - Gizarte-bazterkeriaren Balioespenerako Instrumentua onesten duen 385/2013 Dekretuan ezarritako parametroen arabera, pertsona gizarte-bazterkeriako egoera dagoelako zantzuak egotea.
Plaza kopurua		
Koordainketa		
Araua/ordenantza	12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa. 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, Diru-sarrerak bermatzekoa eta gizarteratzekoa. 60/2011 Foru Dekretua, martxoaren 22koa, Gizarte-inklusionarako laguntza berezia arautzen duena. 4/2011 Dekretua, urtarrilaren 28koa, Gizarte Larrialdiko Laguntzei buruzkoa. 16/2017 Dekretua, urtarrilaren 17koa, Gizarte Larrialdiko Laguntzei buruzko Dekretua aldatzen duena. Oinarrizko gizarteratze-programan lehen mailako premiak eta ostatu-beharra asetzeko prestazio ekonomikoak lortzeko dekretua/araudia. Oraindik egiteke dagoen araudia (beharrezkoa da kudeaketa-treska administratiboak eta informatikoak egokitzea, AUPAC eta prozedurak, aldatzea...).	
Oharrak	Hiru hilabete (gehienez) ekitaldi berean.	
Aurrekontua (proposamena)	9.000 € Gehienezko kide kopurua duten bost familiari laguntzeko aurrekontuaren proposamena. Beraz, janaria, oinarrizko premiak eta ostatua ordaintzeko zenbateko maximoa esleitu behar dela aurreikusi da.	

Zerbitzuaren izena: GARAIPEN BERRIA GIZARTERATZE PROGRAMA
Zk.: 1.7.2.4.

Definizioa eta helburua	• Parte-hartzaileen gaitasun pertsonalak (kognitiboak eta instrumentalak) eta sozialak garatzeko programa. • Talde-esparru batean, pertsona bakoitzak berezkoa duen gaitasuna indartuko da, banakako eta taldeko elementuak aurki ditzan, indarberritu dadin. Gainera, nork bere buruarekin eta beste pertsonekin harremanetan jartzeko modua aberastuko du, bai eta, horren ondorioz, bere ingurunearekin ere. • Eduki nagusiak: Garapen pertsonala / Gizarteratzea / Ikuspegi komunitarioa / Sare-lana. • Helburu nagusia pertsonak ahalduentzea da, trebetasun eta gaitasun pertsonal eta sozialak emanez, eta udalerriko baliabide soziokomunitarioak haien eskura jartzea.	
Aldaerak	Ez	
Prestazioak	Gizarte Zerbitzuenak	• Informazioa. • Gizarte-diagnostikoa. • Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea (taldekoa zein banakakoa). • Jarraipenaren balioespena. • Lagun-egite soziala.
Hartzaileak	Egoera	Prestazio ekonomikoak (DSBEa, GLLak, GULak) jasotzen dituzten edo gizarte-egoera ahulean dauden pertsonak, arlo hauetakoren batean zailtasunak edo gabeziak dituztenak: • Gaitasun soziala eta trebetasunak. • Gaitasun kognitiboa eta trebetasunak. • Gaitasun instrumentala eta trebetasunak.
	Adina	18 eta 65 urte bitarteko pertsonak.
Lortzeko baldintzak	Administraziokoak	Ermuko udalerrian erroldatuta egotea eta benetan bizitzea.
	Premiazkoak	Gizarte- eta hezkuntza-arloko laguntza eta/edo arlo psikosozialeko laguntza behar izatea, trebetasun pertsonalak eta sozialak hobetzeko, eta modu autonomoan eta osasungarrian moldatzeko.
	Ez	



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA

ERMUA HIRIKO UDALA

Koordainketa		
---------------------	--	--



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

1.8. GAUEKO HARRERA ZERBITZUA



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Zerbitzuaren izena: GAUEKO HARRERA ZERBITZUA * (1)
Zk.: 1.8.1.1.

Definizioa eta helburua	Bazterkeria-egoeran dauden pertsonen, eta bereziki iragaitzazko bidaiariei eta etxerik ez duten pertsonen eskaintzen zaien elementu bat da, laguntza-intentsitate txikikoa, gaua igarotzeko baliabide bat, oinarritzko prestazioak berehala eskaintzen dituenak ostatuari, mantenuari eta higiene pertsonalari dagokienez. Egonaldia iraupen laburrekoa da, astebeteko gehieneko epea ezartzen baita, baina epe hori luzatu ahal izango da, behar izanez gero, bazterkeria balioesten den arte, eta, hala badagokio, balioespena egin ondoren, bigarren mailako arretarako baliabideak lortu ahal izango dira. Zerbitzu iraunkorra da eta urteko gau guztietan eskaintzen da, baina urteko aldi jakin batzuetan indar daiteke premien igoerari erantzuteko.	
Zerbitzu motak	Ez	
Aldaerak	Ez	
Prestazioak	Gizarte Zerbitzuenak	Informazioa. Premien hasierako balioespena, eta, hala badagokio, jarraipen-balioespena. Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea: Esku-hartze psikosoziala (entzute aktiboa eta emozioei eustea).
	Osagarriak	Gaua igarotzea. Mantenua (afaria eta/edo gosaria). Higiene pertsonala. Ikuztegia. Urgentziazko oinarritzko arropa.
Hartzaileak	Egoera	Gaua igarotzeko baliabide bat behar duten eta bazterkeria-egoeran dauden pertsonak, premia edo zirkunstantzia bereziak dituzten pertsonak izan ezik (bereziki, jokabide-nahasteak, azkenaldiko ospitaleko alta –gaixondoan laguntza behar duena– eta abstinentsia-sindromea batera gertatzen diren egoerak). Pertsona horiek Gizarteratze-premiei erantzuteko Gaueko Harrera Zentroan (2.3.2) edo Bazterkeria- eta marjinazio-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroan (2.4.5) artatuko baitira.
	Adina	18 urte edo gehiago izatea.
Lortzeko baldintzak	Administraziokoak	Eskatuko den baldintza bakarra preskripzio teknikoa da, eta zuzenean lortzeko zerbitzua denez, zerbitzua lortu ahal izango da, beraz, aurretik Oinarritzko Gizarte Zerbitzuaren urratsa egin behar izan gabe.
	Premiazkoak	a) Zentroko langileek higiene pertsonalari eta zentroaren higieneari dagokienez emandako

		jarraibideak betetzeko konpromisoa hartzea. b) Jokabide-nahasterik ez izatea eta/edo zerbitzuaren funtzionamendua edo zerbitzuko bizikidetza normala larriki nahas dezakeen edota pertsonarentzat berarentzat, beste erabiltzaile batzuentzat edo profesionalentzat arriskutsua izan daitekeen portaerarik ez agertzea. c) Ospitaleratzea eskatzen duen gaixotasun fisikorik edo psikikorik ez izatea. d) Zerbitzuaren berezko zuzkiduren irismenetik eta aukeretatik kanpo dagoen osasun-laguntza espezializatu eta/edo iraunkorrik behar ez izatea.
Plaza kopurua	18	
Koordainketa	Ez	
Araua/ordenantza		
Oharrak		* (1) Durangoko Merindadeko Mankomunitateak ematen duen zerbitzua, Bizkaiko gizarte-zerbitzuen maparen arabera.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

1.9.1. ALDI BATERAKO OSTATU ZERBITZUA



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Zerbitzuaren izena: INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAKO HARRERA ETXEA
Zk.: 1.9.1.1.

Definizioa eta helburua	Emakumeei etxeko indarkeria-egoeratik indarberritzeko eta egoera hori gainditzeko etxe bat izatea, betiere, ohiz kanpoko babes-neurririk behar ez bada. Larrialdiko harrera emateko balio du. Aldi baterakoa da. Laguntza-intentsitate txikiko zerbitzu bat da. Langileak ez daude etengabe etxean, eta ez dago etxeari bereziki atxikitako langilerik. Behar izanez gero, egokitzen hartzen diren kanpo-baliabideak antolatuko dira. Kokapenari buruzko konfidentzialtasuna bermatzeko neurriak daude. Genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeei laguntzeko baino ez da.	
Zerbitzu motak		
Aldaerak		
Prestazioak	Gizarte Zerbitzuak eta Berdintasunaren ak	Informazioa. Jarraipenaren balioespena. Laguntza ekonomikoa, beharrezkoa bada. Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea, behar denean. Lagun-egite soziala. Bitartekotza, behar bada. Beharrezkoa bada, aholkularitza juridiko espezializatua. Behar izanez gero, laguntza psikologiko espezializatua.
Hartzaileak	Egoera	Etxeko indarkeriaren biktimak izan diren emakumeak, indarkeria gainditzeko prozesuan baldin badaude eta babes neurririk behar gabe ostatu hartzeko aldi baterako alternatiba bat behar badute.
	Adina	18 urteko edo gehiagoko eskatzaileak, eta, hala badagokio, euren kargura, ardurapean eta zaintzapean norbait –adingabeak zein adinekoak– duten pertsonak.
Lortzeko baldintzak	Administrazioko ak	Agindu teknikoak.
	Premiazkoak	a) Intentsitate txikiko laguntza behar izatea. b) Osasun-laguntza espezializatu eta/edo iraunkorrik behar ez izatea. c) Jokabide-nahasterik ez izatea eta/edo zerbitzuaren funtzionamendua edo zerbitzuko bizikidetzaren normala larriki nahas dezakeen edota pertsonarentzat berarentzat, beste erabiltzaile batzuentzat edo profesionalentzat arriskutsua izan daitekeen portaerarik ez agertzea. d) Gaixotasunik izanez gero, dagokion

		tratamendua onartzea.
Plaza kopurua		Bi pertsonarentzako bi gela (lau pertsona), eta sehaska bat.
Koordainketa	Ez	
Araua/ordenantza		Barne-erabilerako araudia.
Arau-esparrua	4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunekoa. EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VI. Plana. Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. akordioa Genero-indarkeria eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei arreta hobea emateko erakundeen arteko jarduerarako eta koordinaziorako tokiko I. udal-protokoloa. 148/2007 Dekretua, irailaren 11koa, etxeko eremuan tratu txarren biktimak diren emakumeen harrerarako baliabideak arautzen dituen.	
Oharrak	Berdintasun Departamentuak koordinatzen du zerbitzua. Sarrera-batzorde bat dago. Emakumearen udal-kontseiluak proposatuta, 1995eko irailaren 27an, udalbatzak Ermua "eraso sexistarik gabeko udalerrri" izendatzea erabaki zuen	



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Zerbitzuaren izena: LARRIALDIKO ETXEBIZITZA
Zk.: 1.9.1.2.

Definizioa eta helburua	Iraupen txikiko egonaldia behar duten bizikidetza-unitateei ostatua eskaintzea, gizarte-larrialdiko egoera baten ondoriozko ostatu-gabeziari aurre egin diezaioten.	
Aldaerak		
Zerbitzu motak	Bai.	a) Bat-bateko zoritxar batek eragindako larrialdia.
		b) Porrot Ekonomikoa Egiteko Arriskuan dauden Familiei Laguntzeko Plan Integrala aplikatzea eskatzen duen larrialdia.
Prestazioak	Gizarte Zerbitzuenak	• Informazioa. • Jarraipenaren balioespena. • Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea, b) kasuan. • Lagun-egite soziala. • Bitartekotza, behar bada.
Hartzaileak	Egoera	Gizarte-larrialdiko egoera baten ondorioz aldi baterako ostatu bat behar duten pertsonak edo bizikidetza-unitateak. Hona hemen arrazoiak: • Bat-bateko zoritxarra. • Ohiko bizitza galdu izana.
	Adina	18 urteko edo gehiagoko eskatzaileak, eta, hala badagokio, euren kargura, ardurapean eta zaintzapean norbait –adingabeak zein adinekoak– duten pertsonak.
Lortzeko baldintzak	Administraziokoak	Agindu teknikoa.
	Premiazkoak	a) Intentsitate txikiko laguntza behar izatea. b) Arreta Pertsonalizatuko Plana ezartzeko prestasuna.
Plaza kopurua	5	Larrialdiko etxebizitza: 1
		Planeko etxebizitzak: 4
Koordainketa	Bai	
Araua/ordenantza	Bai	25. ordenantza.

		Porrot ekonomikoa egiteko arriskuan dauden familiei laguntzeko Plan Integralean inskribatutako bizikidetza-unitateei Ermuko Udalarenak diren etxebizitzaren erabilera lagatzea arautzen duen Ordenantza.
Oharrak		• Larrialdiko etxebizitza: Aldapa 4, 4. sol. • Planeko 1. etxebizitza: Abeletxe 10, 4. A. • Planeko 2. etxebizitza: Abeletxe 10, 6. A. • Planeko 3. etxebizitza: Aldapa 2, behe A. • Planeko 4. etxebizitza: Izelaieta 11, 1. F.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Zerbitzuaren izena: EGOKITUTAKO ETXEBIZITZA
Zk.: 1.9.1.3.

Definizioa eta helburua	Iraupen txikiko egonaldi bat behar duten mendeko pertsonen eta haien bizikidetzak-unitateen ostatura eskaintzea, ohiko etxebizitza egokitzeko lanak egiten diren bitartean, edo bat-bateko arrazoiengatik edo mendetasun-egoera okertzeagatik beste etxebizitza bat bilatzen duten bitartean.	
Zerbitzu motak	Ez	
Aldaerak	Ez	
Prestazioak	Gizarte Zerbitzuak	Informazioa. Jarraipenaren balioespena. Lagun-egite soziala.
Hartzaileak	Egoera	Mendeko pertsonak edo haien bizikidetzak-unitateak, ohiko etxebizitza egokitzen den bitartean aldi baterako ostatu bat behar dutenak.
	Adina	Etxebizitza egokitzea behar duen pertsonari dagokionez, ez dago adin-mugarik. Adingabea denean, gurasoek edo tutoreak egin behar dute eskabidea.
Lortzeko baldintzak	Administratzaileak	Agindu teknikoak.
	Premiazkoak	a) Mendeko pertsonaren osasun-egoera zehazten duen txosten medikoa. b) Ohiko etxebizitzarako obra-proiektua.
Plaza kopurua	4	
Koordinaketa	Bai	
Araua/ordenantza	Ez	
Oharrak		Etxebizitzaren helbidea: Abeletxe 10, 4. A.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Definizioa eta helburua	Tutoretzapeko etxebizitzak kolektibo-izaerako eta egonaldi laburreko edo ertaineko ostatu ematen die bazterkeria-arrisku handiko egoeran dauden pertsonari. Laguntza-intentsitate txikiko zerbitzua da, eta langileen etengabeko presentziarik gabe, Udalaren Gizarte Zerbitzuan erreferenteak diren teknikarien laguntza du honako eginkizun hauek gauzatzeko: a) etxebizitzara bertaratuta gainbegiratzea; b) bitartekaritza-bitartekotza, tutoretza eta lagun-egitea etxebizitzan edo udalaren gizarte-zerbitzuetan gauzatu ahal izango dira. Etxebizitza-eraikin arrunt batean kokatzen da normalean. Eta honako helburu nagusi hauek ditu: erabiltzaileek trantsizio-prozesuak egitea egoera normalizatuari begira, eta bizimodu autonomoa garatzeko trebetasun pertsonalei, autoestimuari, konfiantza pertsonalari eta gaitasunei eutsiko dieten eta haiek berreskuratzeko eta/garatzeko prozesuak gauzatzea; horretarako, erabiltzaileei eskatuko zaie Arreta Pertsonalizatuko Planean, eta, hala badagokio, haien programazio indibidualean zehazten diren ekintzak gauzatzeko.	
Zerbitzu motak	Ez	
Aldaerak	Ez	
Prestazioak	Gizarte Zerbitzuenak	Informazioa. Jarraipenaren balioespena. Lagun-egite soziala.
Hartzaileak	Egoera	Bazterkeria-arrisku handiko egoeran dauden pertsonak, zerbitzu honen ondorioetarako, erreferentziazko profesionalaren balioespenaren arabera honako ezaugarri hauek dituzten pertsonak halakotzat hartuta: a) egonaldi laburreko edo ertaineko ostatu-alternatiba bat behar dute, etxebizitza norbaitek gainbegiratzen duela, beren gizarteratze-prozesua bizigarritasun-baldintzetan egin ahal izateko ostatu-alternatibarik ez dutelako; b) ez dute baliabide ekonomiko pertsonalik; c) eta ez dute laguntza soziofamiliarrik. Egoitza-zentroetan artatu dituzten pertsonak ostatu-zerbitzu hau lortu ahal izango dute, baldin eta bazterkeria-arrisku handian badaude eta haien gizarteratze-prozesua eta bigarren mailako arreta-mailatik ematen zitzaizen arreta eten bada. Bizikidetza-unitateari eustearren, honako hauek ere lortu ahal izango dute zerbitzu hau: a) ohiko moduan eskatzailearekin bizi den ezkontideak edo izatezko bikoteak, eskatzailea tratu txarrak jasan dituen emakume bat denean izan ezik; b) eskatzailearen ardurapean dauden adingabeak; c) eskatzailearen tutoretzapean dauden helduak edo, tutoretzapean egon gabe ere, mendetasun-egoeran edo mendetasun-arriskuan daudenak eta ohiko moduan eskatzailearekin bizi direnak.

	Adina	18 urteko edo gehiagoko pertsonak.
Lortzeko baldintzak	Administrazioko ak	Eskaera-dataren aurreko sei hilabeteetan EAEko edozein udalerritan erroldatuta egotea.
	Premiazkoak	a) Egonaldi laburreko edo ertaineko ostatu hartzeko alternatiba bat eskatzea gizarteratzeko ibilbide bat egiteko. b) Bizi duen egoeraz jabetzea eta egoera hori aldatzeko motibazioa izatea. c) Gizarteratzeko eta laneratzeko edo arlo okupazionalako ibilbide bat egiteko konpromisoa hartzea eta ibilbide hori zerbitzu hau erabiltzen duen bitartean egitea. d) Intentsitate txikiko babesa behar izatea, gizarte-eta hezkuntza-arlokoa, komunitate-ingurunean bizitza autonomoa izateko eta gizarteratzeko gaitasun pertsonalak garatu edo horiei eutsi ahal izateko. e) Gizarte-zerbitzuen sarearen berezko horniduren aukeretatik edo hedaduratik kanpoko osasun-laguntza espezializatua eta/edo iraunkorra behar ez izatea. f) Jokabide-nahasterik ez izatea eta zerbitzuaren funtzionamendua edo zerbitzuko bizikidetza normala larriki nahas dezakeen edota pertsonarentzat berarentzat, beste erabiltzaile batzuentzat edo profesionalentzat arriskutsua izan daitekeen portaerarik ez agertzea. g) Gaixotasun infekzioso eta kutsakor bat eta/edo gaixotasun mentalen bat izanez gero, dagokion tratamendua ez baztertzea.
Plaza kopurua	13	
Koordainketa	Bai.	
Araua/ordenantza		
Oharrak		* (1) Durangoko Merindadeko Mankomunitateak kudeatutako zerbitzua, Bizkaiko gizarte-zerbitzuen maparen arabera.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

1.9.2. ADINEKOENTZAKO OSTATU ZERBITZUAK



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Zerbitzuaren izena: ADINEKOENTZAKO ETXEBIZITZA KOMUNITARIOA * (1)
Zk.: 1.9.2.1.

Definizioa eta helburua	Egonaldi luzeko ostatua edo ostatu iraunkorra izan daiteke, baita, salbuespenez, aldi baterakoa ere. Zerbitzu hau intentsitate txikikoa da, eta langileen laguntza du (tutoretzapeko apartamentuen kasuan, langile horiek ez daude derrigorrez zerbitzu honi atxikita) tutoretzako, bitartekaritzako/bitartekotzako, lagun-egite sozialeko eta gainbegiratzeko eginkizunak egiteko, baita, hala badagokio, arreta pertsonala eta etxeko arreta emateko ere. Honako helburu hauek ditu: a) Erabiltzaileek komunitate-ingurunean jarrai dezaten ahalbidetzea. b) Erabiltzaileen autonomia pertsonalaren maila hobetzea, mailari eustea eta/edo modu autonomoan moldatzea ahalbidetzen duten gaitasun eta trebetasunen narriaduraren prebentzioa. c) Isolamendu-egoerak saihestea. d) Erabiltzaile horiei segurtasun-sentimendua ahalbidetzea.	
Zerbitzu motak	Ez	
Aldaerak	Ez	
Prestazioak	Gizarte Zerbitzuenak	Jarraipenaren balioespena. Bitartekaritza - Bitartekotza. Lagun-egite soziala. Arreta pertsonala, behar denean. Etxeko arreta, hala badagokio. Tutoretza eta gainbegiratzea.
	Osagarriak	Hala badagokio: Mantenua. Garbitasuna. Ikuztegia.
Hartzaileak	Egoera	I. graduko mendetasun-egoeran dauden adinekoak, baldin eta: a) Erreferentziazko profesionalaren balioespenaren arabera, egonaldi luzeko edo etengabeko egonaldiko (edo, salbuespenez, aldi baterako) ostatu-alternatiba bat behar badute irigarritasunari eta/edo bizigarritasunari dagokionez ostatu-alternatiba egokirik ez dutelako, eta/edo bizikidetza-arazoak edo bakardade-arazoak (gizarte-isolamendua) dituztelako. b) Intentsitate txikiko laguntzak behar dituzte, komunitate-ingurunean bizimodu autonomoa egitea ahalbidetuko dieten harreman-arloko trebetasunei eusteko edo trebetasun horiek garatzeko, eta, hala badagokio, eguneroko bizitzako jarduerak egiteko. Bizikidetza-unitateari eusteko, eskatzaileaz gain, honako hauek lortu ahal izango dute zerbitzua: ohiko moduan eskatzailearekin bizi den ezkontideak edo izatezko bikotekideak, eta, salbuespen gisa, haren ardurapean dauden seme-alabak.

	Adina	65 urteko edo gehiagoko pertsonak.
Lortzeko baldintzak	Administraziokoak	Gizarte- eta familia-arloko laguntza-sareko bizilekuak txandakatuz gero, baldintza hori zaintzen den pertsonak edo haren senide zaintzaile orok bete ahal izango dute, betiere eskaera egiten denean elkarrekin bizi baziren edo bizi badira.
	Premiazkoak	e) Gizarte-zerbitzuen sarearen berezko horniduren aukeretatik edo hedaduratik kanpoko osasun-laguntza espezializatua eta/edo iraunkorra behar ez izatea. b) Jokabide-nahasterik ez izatea eta/edo zerbitzuaren funtzionamendua edo zerbitzuko bizikidetzaren normala larriki nahas dezakeen edota pertsonarentzat berarentzat, beste erabiltzaile batzuentzat edo profesionalentzat arriskutsua izan daitekeen portaerarik ez agertzea. g) Gaixotasun infekzioso eta kutsakor bat eta/edo gaixotasun mentalen bat izanez gero, dagokion tratamendua ez baztertzea.
Plaza kopurua	11	
Koordainketa	Bai.	
Araua/ordenantza	Bai.	21. ordenantza.
Oharrak		* (1) Zorroari buruzko dekretuak ematen dituen bi aukeretatik, gure udalerriarentzat bideragarriena hautatu da. Tutoretzapeko etxebizitzaren eta etxebizitza komunitarioen artean, bigarren kontzeptua aukeratu da.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Prestazio Izena: ZERBITZUARI LOTUTAKO PRESTAZIO EKONOMIKOA
3.4.1. zbk.

Definizioa eta helburuak	Prestazio honen helburua honako hau da: Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistematik kanpo sistema horren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko prestazio edo zerbitzu baten antzeko ezaugarriak dituen eta erabiltzaileak horretarako eskubidea duen baina sistema horretan bildutako zerbitzuen esparruan une jakin batean, adibidez zerbitzu hori behar adina ezin denean estali, lortzeko aukera bermatu ezin zaion prestazioa edo zerbitzua lor dezan erraztea. Aurrekoa Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren plangintzan aurreikusitakoaren arabera beren hornidura garatzen ari den zerbitzuei bakarrik aplikatuko zaie.	
Zerbitzu motak	Ez dauka	
Barianteak	Ez dauka	
Prestazioen ezaugarriak eta haiek jasotzeko baldintzak	a) Mendetasun-egoeran dagoen pertsonaren bati arreta emateko bada, Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren barruan kokatuta dago. Beste prestazio ekonomiko edo zerbitzu batzuekin bateragarria edo bateraezina den erabakitzeke, bateragarritasun eta bateraezintasun-araubidean lortu nahi duen zerbitzuari dagokionez ezarrita dagoena izango da kontuan. b) Aldian behingoa da. c) Aldi baterakoa eta salbuespen modukoa da, eta erabiltzailearen eskubidea aitortzen den unetik Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren barnean dagokion prestazioa edo zerbitzua efektiboki lortzen duen unera bitarteko aldirako bakarrik ematen da, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 16.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera. d) Prestazioa pertsonak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sisteman txertatutako zerbitzuren bat lortzen duenean iraungitzen da.	
Hartzaileak	Egoera	Kasu bakoitzean prestazio ekonomikoa lotuta dagoen zerbitzuari dagozkion egoerak aplikatuko dira.
	Adina	Kasu bakoitzean prestazio ekonomikoa lotuta dagoen zerbitzuari dagozkion adin-mugak aplikatuko dira.

Lortzeko baldintzak	a) Prestazioari lotutako zerbitzuak eskuratzeko baldintza propioak betetzea. b) Eskaera aurkezten den egunean, prestazioa eskatzen den administrazioari dagokion Lurralde Historikoko udalerriren batean erroldatuta egotea eta bertan erroldatuta egoten jarraitzea prestazioa jasotzen den denbora guztian, prestazioa lortzen duten pertsonak gizarte-premiazko egoeran daudenean salbu, betiere 1.9.1 fitxan biltzen diren terminoetan. c) Izaera horretako behar bezala baimendutako zerbitzu batean plaza edo zerbitzu pribatua duela egiaztatzea.	
Zenbatekoa	Gehieneko zenbatekoa urtero finkatzen du Udalak. Mendetasun-egoeran dauden pertsonentzat denean, Estatuak ekitaldi bakoitzerako ezarritakoa hartuko du zenbateko horrek erreferentziatzat. Gehieneko zenbateko horiek murriztu egiten dira honako hauek kontuan izanik: a) Zerbitzuaren kostua, aipatutako gehieneko zenbateko-mugarekin. b) Eskatzailearen banako gaitasun ekonomikoa, erabiltzaileek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen finantzaketan ordaintzera behartuta dauden pertsonen partaidetza ekonomikorako irizpide orokorrak erregulatzeko araudian horri dagokionez zehaztutako moduan. c) Arreta emateko gizarte-zerbitzu bat edo bestelakoren bat aldi berean erabiltzea, telelaguntza-zerbitzuaren kasuan izan ezik; telelaguntza-zerbitzua prestazio ekonomikoarekin batera egin daiteke, horren zenbatekoan eraginik izan gabe. d) Antzeko izaera eta helburua duten bestelako prestazioak –gizarte-babeserako erregimen publikoetan ezarritakoak– kobratzea: i) baliaezintasun handiko osagarria ii) % 75eko edo hortik gorako desgaitasun-gradua duen 18 urtez gorako ardurapeko seme edo alaba bakoitzarengatiko esleipen ekonomikoaren gehigarria iii) hirugarren pertsonak kotizazio gabeko baliaezintasun-pentsioa behar izateagatiko gehigarria.	
Plazak	--	
Baterako ordainketa	Ez	
Araua/ordenantza	Bai	Egiteko
Oharrak		